

# TOPONIMIA, DIALEKTOLOGIAREN IKERBIDE

Patxi SALABERRI  
Nafarroako Unibertsitate Publikoa

## SUMMARY

This paper intends to underline the importance which toponymy might take on for dialectological research, in particular, in the vast regions of Navarra where Basque does not now exist as a spoken language, where it may help us to gain a better knowledge of the system of the Basque language which has disappeared in those locations. Places where Basque is still a living language, toponymy and the diachronic study of toponymy allow certain historical evolutions to be explained more satisfactorily, and this way of access seems to us to be essential, above all when written sources are not available.

The points examined are as follows: 1) The phonetic level: vocalic harmony, sibilants, the disappearance in sonant occlusives and the uncertain fate of initial occlusives. 2) Semantic level. 3) Morphological level. 4) Prosodic level.

## RESUME

Ce travail veut souligner l'importance que la toponymie peut revêtir pour les recherches dialectologiques, en particulier dans les vastes régions de Navarre débasquisées où elle peut nous aider à mieux connaître le système du basque disparu à cet endroit. Là où le basque est encore bien vivant, la toponymie et l'étude diachronique de la toponymie permettent de mieux expliquer certaines évolutions historiques, et cette voie d'accès nous paraît essentielle, surtout quand les sources écrites manquent.

Les points examinés sont les suivants: 1) Le niveau phonétique: l'harmonie vocalique, les sifflantes, la chute des occlusives sonores et le sort incertain des occlusives initiales. 2) Niveau sémantique. 3) Niveau morphologique. 4) Niveau prosodique.

Lan honen helburu nagusia dialektologia eta toponimiaren arteko harremanen beharra azpimarratzea da. Izan ere, gure hizkuntza bizirik dagoen tokietan lehen zeregina zalantzarik gabe euskara bizi hori biltzea da, bereziki deseuskalduntze prozesua bortitza izan den tokietan. Euskara galdu den eremu zabaletan ordea, ez dugu, gutiz gehienetan, bertako hizkuntza ezagutzeko biderik izaten, tamalez Elkanoko Lizarragaren lanak edo bestelako euskal testuak salbuespen baitira berandu arte euskalduna izan den eta orain erdalduna den Nafarroako zati handi batean.

Honelakoetan bertako euskararen berri izan nahi badugu toponimiara jo beharko dugu nahitaez, leku-izenen azterketaren bidez lortzen den hizkuntzaren ezagutza murrizta dela ongi jakinagatik. Izan ere, joskerari dagokion gehiena ilunbetan geldituko da, toponimoek ez baitigute emanen, adibidez, perpaus mota ezberdinen berri gehiegi. Guztiarekin ere, arlo honetan ere atera dezakegu argitasun zerbait, aurrerago ikusiko denez.

Toponimiaren emaitzarik hoberenak, gure ustez, fonetika eta hiztegi (semantika) mailetan izanen ditugu, morfologian lor ditzakegun argitasun ugariak ahantzi gabe. Orain, sarrera honen ondoren, toponimiaren azterketak ezagutzera ematen dizkigun zenbait puntu ikustera igaroko gara, fonetika mailatik hasita:

## A) Fonetika maila

### 1. Bokal armonia

Hemen batez ere bi gauza interesatzen zaizkigu: lehenbizi zein tokitan gertatzen zen zehaztea, eta gero diakronikoki zein izan den gertakari honen bilakaera argitzea.

Bokal armoniaren banaketa geografikoa sakonki aztertu gabe ere, badakigu orain euskara galdua dagoen bailara batzutan ez zela gauzatzen, ditugun datuek erakusten dutenez<sup>1</sup>:

*Oibar* aldean, adibidez, ez dugu sekulan horren arrastorik ediren, eta gauza bera esan dezakegu *Urraulbeiti*, *Ibargoiti*, *Orba* eta *Elortzibarrez*. *Aranguren* ibarrean, ordea, badugu gertakari honen adibide bat Ilundain herrian<sup>2</sup>, eta J.M<sup>a</sup>. Jimeno Jurfok aztertu duen *Iruñerriko* toponimian bokal

<sup>1</sup>. Eskerrak eman nahi dizkiegu lan hau burutzeko beharreko datuak eskuratzen lagundu digutenei, bereziki Mikel Etxegarai, Margari Goikoetxea, Magdalena Inda, Andrés Iñigo, Mikel Iriarte, Norberto Iribarren, Rafael Iso, José Mari Jimeno Jurio, Mikel Melero, Matías Mugika, Antonio Nuin, Mikel Taberna, Mikel Velasco, Juantxo Urdiruz, eta J. Jose Zubiriri.

<sup>2</sup>. *Zugarcoeta* dugu 1708an, *Zurerecoa* 1794ean, *Zuguerpecoa* 1849ean. Pedro Arriaga Mugueta, "Toponimia de Ilundáin (Valle de Aranguren)", argitaratu gabeko lana.

armoniaren arrasto ugari ditugu, nahiz, esan bezala, bokal armoniarik ez duen makina bat adibide ere aurkitu.

*Mañeruibarren* aldakuntza jasan duen adibide bakarra dugu; *Etxauribarren* aldiz herri gehienetan dugu lekukoren bat (Arraitza, Bidaurreta, Etxauri, Zabaltza, eta Ziritzan). *Olloibarren* bokal armonia zela badakigu, *Erizkizundi Irukoitza* egin zenean euskalduna baitzen, hein batez behinik behin. Lan honetan biltzen diren adibideen artean Ollo herrian jasotako hauek aipa daitezke, besteak beste: *egie egia*’, *mutille* ‘mutila’, *irure* ‘hiruna’, *inder* ‘indar’, *txerrie* ‘txerria’, *aitte* ‘aita’, *nitez* ‘nitaz’, *gaitze* ‘gaitza’, *jaune* ‘jauna’, *larunbeta* ‘larunbata’...

Egungo toponimian ere euskarazko gertakari fonetikoaren aztarnak argiak dira.

Azkenik, *Atetz*, *Xulapain* eta *Gulibarren* ere baditugu bokal-armoniaren adibide garbiak.

Dokumentazioa gehienetan kontserbatzailea izaten da, eta sarri askotan ez ditu hizkera mintzatuaren gertakariak isladatzen, hots, tradizioak inposatutako izenak aurkitzen ditugu hein handi batez, izenak inola ere aldaezinak ez diren arren, toponimiaz arduratu den orok ongi dakien moduan. Hau dela eta, testu idatzirik ez dugun herrietan, toponimia nahasgarri samarra izan daiteke, oraingo toponimo batzuetan bokal armonia garbi (samar) agertzen den bitartean, beste batzuetan horrelakorik aurkitzen ez dugulako.

Adibidez J. Juríok aztertu duen Iruñerriko Ibero herrixkan<sup>3</sup> *Camino de Zumadia*, *Ididia* [id̥d̥ja], *Lapastia* [lapástja], *Lukua* [lúkwa], *Osabia* [osábja] ditugu aipatu ikerleak “documentación contemporánea” deitzen duenaren barruan, hots, azken mendetsuko dokumentazioan, euskararik egiten ez den garaiko agirietan, hortaz.

Horien ondoan *Aucelorrés* (< *Auzelor* < *Auzalor*), *Eguldepiá* [eguldepja] (< *ugeldepiá* [uge]depja < *ugaldepea*), ditugu, *Zarrazibel* (*Zarrazibal* ere bai, *Zarrazibar*-etik, antza) eta *Zumedia* [sumédja] (cf. *Camino de Zumadia*)-rekin batera

Hau ikusita batek ez daki ongi zer pentsatu; badirudi bokal armonia bazela, baina kontradibideak ere badira, eta beraz zalantza da nagusi. Nolanahi ere, eta dokumentazioaren joera kontserbatzailea ezagututa, honelako kasuetan bokal armonia bazela ondorioztatu behar dela uste dugu, Iberon bertan agitzen zen moduan. Izan ere, badugu XIX. mendearen hasierako herri honetako gurutze-bide edo “viacrucis” bat<sup>4</sup> euskaraz, eta hor garbi ikusten da bokal armonia bazela: *Jaune*, *eguescoa*, *gauce guciec*, *urriquerituric* ‘urrikaldua’,

3. Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Cendea de Olza (TCPCO). Euskaltzaindia, Iruña, 1989. 119-153. orr.

4. Jesús Arraiza Frauca, “Ibero. Viacrucis en bascuence de comienzos del siglo XIX”, *FLV* 51, 1988, 143-154. orr.

*penitencie, Aite, ematen didena* ‘ematen didana’, *trabajuec, gracie, nites* ‘nitaz’, *idurie, ceruen...* eta beste hainbeste, bokal armoniarik ez duten adibideak ere aurkitu arren<sup>5</sup>: *erchia, veigiac* ‘begiak’, *onesia* ‘onetsia’, ‘maitatua’, *andia, iguzquia...*

Mitxelenak dioenez<sup>6</sup> aztergai dugun gertakaria Euskal Herriko alderdi frankotan aurkitzen dugu, hersketa beti mintzatzean estuki lotuta dauden silaben artean gertatzen delarik. Autore honek dioenez *Viva Jesus* testu bizkaitarrean ageri da, XVII. menderako beraz: *ayte, Hostie, oguie...* Egia esan, ez du sobera sakontzen gai hau, eta Nafarroaz ez du, dakigula, deus esaten.

*Oibar* aldean gertakari honen arradizarik ez aurkitzea euskararen galera goiztiarrari zor zaiola pentsa dezakegu, baina bokal armonia eskualde honetara iritsi ez zela ere pentsa daiteke. *Aezkoan* kasu, ez da sekulan (ez azken mendeetan gutxienez) horrelakorik izan, egun ez agertzeaz gainera dokumentazioan ez baita sekulan azaltzen.

Jimeno Juríok aztertu dituen *Iruñerriko* zendeetan XVI. eta XVII. mendeetako lekukoek ez dute bokal armoniarik isladatzen<sup>7</sup>: *Urbitartea* dugu Gazolatzen 1593an, baina *Ubiterte* 1880an eta orain; *Çuçadi gaña* dugu herri berean 1629an, baina *Zucedigaña* 1837an; *Uasaldea* dugu Galarren 1609an, *Ugas alde* 1688an, baina *Uguesalde* 1837an, *Ugarca* dugu Galar-Getzen 1663an, baina *Huerca* 1927an, *Ugarraga* dugu Atondon 1689an, baina *Uberraga* 1892an.

XVIII. mendean arruntena bokal armoniarik ez aurkitzea da, baina hala ere bada gertakari hau jasan duen adibide mordoxka:

*Usarpea* Atondon 1794ean, *Userpea* urte berean, *Usierpe* 1892an eta orain; *Ybarreguia* dugu 1724ean Zian, baina *Iberreguia* 1786an eta *Iberrégi* orain, *Ugaldecoa* herri berean 1795ean, baina Hugueldea 1786an; *Çaldua* dugu Markelainen 1638an, *Sandua* herri berean 1647an, *Zandue* 1799an, *Zandue* [θándue] orain.

Beste bailara batzuetan ere antzeko egoera somatzen da, dokumentazio zaharrik ez dugunez baieztapen segururik egiterik ez badago ere:

*Xulapaingo* Otsakarren *Ugarana* dugu 1714ean, *Ugueran* 1852an, *Uberán* orain; *Ychalbea* 1645ean, *Ylçalbe* hurrengo urtean, *Ylzarbe* 1712an, *Izelbe* (< *Izelbe*) orain.

*Olloibarren* kasu anitzetan bokal armonia dokumentazioan XIX. mendearen bukaera alde arte edo gure mende honen hasiera arte ez da isladatzen,

5. Honetan eragina izan zezakeen egileak erabilitako ereduak, eredurik izan bazuen bederen.

6. *FHV*, 63-64. orr.

7. Gulibarko Saratsate herrian *Guilledia* dugu 1671n *Guilladia*-ren ondoan, baina hau ezagutzen dugun kasu bakarra da.

baina badira bokal armonia askoz lehenago (XVIII. mendearen lehen erdirako) burutua zela erakusten diguten adibide gutxi batzuk:

Beasoainen *Ugarca andia* dugu 1632an<sup>8</sup>, *Ugarcandia* 1830ean<sup>9</sup>, *Ubercaundi* 1914eko katastroan, *Uberkáundi* orain, baina 1795ean *Regerca andie* desitxuratua dugu<sup>10</sup>, dudarik gabe *Uberka andie* zena; Anotzen *Muguecoa* dugu 1793an<sup>11</sup>, *Elicepea* 1796an<sup>12</sup>; Saldisen *Hugalde bidea* dugu 1631n<sup>13</sup>, *Ugeldeondoa* 1736an<sup>14</sup>; Ollon *Lizasoepa* dugu 1709an, *Lizasoepa* 1736an<sup>15</sup>, *Unça* 1630ean<sup>16</sup>, *Unzegaña* 1733an<sup>17</sup>; Senosiainen *Lugarra* dugu 1711n<sup>18</sup>, *Luguer* 1796an<sup>19</sup>.

Arakil ibarrari dagokionez badugu *Urritzolako* testu zahar bat, J. M<sup>a</sup> Satrustegi biltzaileak dioenez XVII. mendearen bigarren erdikoa izan daitekeena<sup>20</sup>, baina datatze hau ere ez da segurua. Testu honetan *Jaune, Ostie, azpien, marabille, dizuden, jaquiñiquen, andie...* eta beste aurkitzen dugu, eta beraz garbi dago fetxa horretarako bokal armonia indarrean zegoela alderdi honetan. Hau ez dator bat dokumentazioan ediren ohi dugunarekin, *Ubitartea* baitugu 1715ean<sup>21</sup>, *Mendadia* 1699an eta 1715ean<sup>22</sup>... baina Egizarretan 1713rako *Uguelde* azaltzen da<sup>23</sup>.

Guzti hau “cum mica salis” hartu behar dela uste dugu, esan bezala dokumentazioak kontserbatzailea izateko joera duelako. Halaz ere, bokal armonia izan den tokietan beti izanzen dugu, modu nahasgarrian edo garbiro, aldakuntza honen aztarna zerbait, eta horrelakorik ez bada bokal armoniarik izan ez delako da. Dena den, eta ahal delarik, testu idatzietara jo beharko dugu laguntza eske, agiritan ikusitakoarekin alderatu eta behinbetirako ondorioak ateratzeko.

8. Protokolo artxibategia (PRA)-Asiain, 4. k.
9. Oltzako hipotekak, 2. liburua.
10. PRA-Asiain, 175. k.
11. PRA-Asiain, 176. k.
12. PRA-Asiain, 176. k.
13. PRA-Asiain, 48. k.
14. PRA-Asiain, 174. k.
15. PRA-Asiain, 143. k.
16. PRA-Asiain, 48. k.
17. PRA-Asiain, 142. k.
18. PRA-Arakil-Hiriberri, 77. k.
19. PRA-Asiain, 176. k.
20. Euskal testu zaharrak-I, Euskaltzaindia, Iruñea, 1987, 50-52. orr.
21. PRA-Arakil-Hiriberri, 72. k.
22. PRA-Arakil-Hiriberri, 50. eta 72. karpeta, hurrenez hurren.
23. PRA-Arakil-Hiriberri, 61. k.

## 2. Aurreko erdiko bokalaren hersketa

Toponimiaren bidez azter daitekeen beste gertakari fonetiko bat *etxe* > *itxe* aldakuntza da, eta bokal armoniaren kasuan bezalaxe bi aldetatik: banaketa geografikoaren aldetik, eta diakroniaren aldetik.

Banaketa geografikoari dagokionez, ez dugu sekulan aurkitu *Oibar* aldean, *Urraulbeiti*, *Ibargoiti*, *Elortzibar* eta *Orban*; *Aragurengo Labion Itxapéa* dugu, baina haran bereko *Zolian Etxápe* aurkitzen dugu. Iruñerriko *Zizur* zendeako *Zizur Txiki* herrian *Ichetoa* dugu 1837an<sup>24</sup>, eta *Antsoain*<sup>25</sup> eta *Itza*<sup>26</sup> zendeetan ohizkoa dugu aldakuntza hau. Bi zendea hauetan *e* > *i* hersketa aurkitzea ez da harrizkoa kontuan hartzen badugu ondoan dauden *Oloibar*, *Xulapain*, *Gulibar* eta gorago dagoen *Atetzen* ere gertatzen zela edo gertatzen dela:

*Oloibaren Echeondoa* dugu Beasoain-Egillorren, Anotzen, Artetan, eta Ultzurrunen 1903ko katastroan, *Echepea* Ollon urte bereko katastroan, *Echeondoa* Saldisen 1914ean<sup>27</sup>, baina *Erizkizundi Irukoitza*-ren arabera<sup>28</sup> *itxera* 'etxera' esaten zuten Ollon euskara bizirik zegoenean, eta *Itxóndo* dugu egun Artetan, eta beraz badirudi mende hasierako dokumentazioko lekuko horiek kontserbatzaileak direla, ordurako *e*- > *i*- aldakuntza burutua baitzegoen.

*Atetzen Eskolitxa* [èškoličá] 'eskoletxea' dugu Beuntzan, eta *itxa* [íča] 'etxea' da bertako forma arrunta (nahiz gero *itxetik* [içétik]... eta beste esan). Beratsainen ere *itxa* [íča] erraten dute, baina *itxekertea* [içekerčéa] nahiz [içekérčea].

*Arakilen Itxape* [içápe] dugu Errotzen, *itxekarte* 'etxarte', 'etxekarte' Urritzolan, *Echeondoa* 1894eko katastroan herri berean, baina *Itxondoa* [içóndóa] orain, *Etxeberria* [èčebeřía] baina *Itxezar* [içesár], *Jitonitxa* [xìtoničá] edo *Jituenitxia* [xìtweničía] etxe izenak... Etxeberrin *Itxondo* [içóndo] dugu, Ekain *Echondoa* 1894eko katastroan, *Itxondo* [içóndo] orain, baina *Echarrengaray* 1733an<sup>29</sup>, *Etxarrengarai* [ečářeŋgaráj] egun<sup>30</sup>, *Itxepia* [içépja] baina *Etxenepe* [èčenépe]. Satrustegin *Itxondo* [içóndo] dugu (*Echegaña* 1894eko katastroan); Ihabarren *Itxondo* [içóndo] dugu orain,

24. Jimeno Jurío, *Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Cendea de Cizur (TCPCC)*, Euskaltzaindia, Lizarra, 1986, 230. or.

25. Jimeno Jurío, *Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Cendea de Ansoain (TCPCA)*, Euskaltzaindia, Lizarra, 1992.

26. Jimeno Jurío, *Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Cendea de Iza (TCPCI)*, Euskaltzaindia, Lizarra, 1990.

27. Katastroa.

28. 87. or.

29. PRA-Asiain, 142. k

30. Herriaren izenak eragina izan bide du toponimo honetan.

*Echeondoa* edo *Ychandoa* 1894ean<sup>31</sup>, *Echeondoa* 1915ean<sup>32</sup>. Hiriberrin, azke-  
nez, *Itxondóa* dugu bizirik.

Datu hauek ikusita balirudike *etxe* > *itxe* hersketa gertakari berri samarra dela, eta ondar mendeen edo burutu dela, baina hor daude, beste aldetik, Antsoain zendeako *Berriozarko* 1653ko *Ychandia* eta Berriobeitiko 1711ko *Ycheondoa*<sup>33</sup>, eta beraz ustezko aspaldikotasun ez hori zalantzan gelditzen da. Behinbetirako ondorioak ateratzeko toponimia sakonkiago aztertu behar genuke, eta testu idatziak ongi miatu<sup>34</sup>.

### 3. Bustidura

Jakina denez bi bustidura mota nagusi ditugu euskaraz: bustidura adierazgarria eta asimilaziozko bustidura, lehena, gai hau sakonkien aztertu duen Lourdes Oñederraren arabera bigarrena baino zaharragoa delarik, itxuraz<sup>35</sup>. Autore hau honela mintzo da bustiduraren eta orohar gertakari fonetikoaren antzinatasunaz:

Ez da gauza erraza aldakuntza fonologikoen antzinatasuna jakitea, batez ere literaturaren aldetik euskara bezain gazteak diren hizkuntzetan. Jakina denez, aldakuntza fonologikoen abiadura gizakion bizitzarena baino askoz ere motelagoa bait da.

Zeharka atera behar dira tankera honetako berriak: idazki zaharretan aurki daitezkeen arrastoak, egungo palatalizazioaren fonologia nahasia, euskalkietan zehar duen hedadura, hizkuntzaren fonologian beste bilakabideekiko daukan lekua, e.a. izan daitezke aldakuntza baten antzinatasuna ezagutzeko bide.

Gertakari hau ezagutzeko beste bide bat toponimia izan daitekeela etsietsiak gaude, eta hau gorago esan moduan aspaldiko eta oraingo aldaerak erkatzeko aukera izaten dugulako, dokumentazioko lekukotasunez eta oraingo toponimia biziaz baliatuz.

Jakina denez bustidura euskalki batzuetan ugaltu den bitartean beste batzuetan despalatalizazioa gertatu da<sup>36</sup>, eta toponimia kontrako bi joera hauek

31. Urte honetako katastroa.

32. Urte honetako katastroa.

33. Jimeno Jurio, TCPA, 211 eta 279. or.

34. Lezoko Isastiren 1620 aldeko atsoitzetan *ichera*, *ychean* edo *ychian*, *ycheac* dugu, eta bertan *itxe* esaten da gaurregun. Ikus Mitxelenaren TAV, Minotauro, Madril, 1964, 176-183. orr.

35. *Euskal fonologia: palatalizazioa*, Euskal Herriko Unibertsitatea, 1990, 23-26. orr.

36. Ikus Mitxelenaren "Notas fonológicas sobre el Salacenco", *Palabras y textos*, 230-231. orr. Nafarroan despalatalizazioa gutxienez Aezkoan eta Burundan aurkitzen dugu bizirik dauden mintzoen artean. Urbasaz beste aldean dagoen Ameskoagoienean ere despalatalizazioa gertatu zela dirudi, bai eta ondoan dagoen Allin ibarrean ere, itxuraz. Bailara hauetako XVIII eta XIX. mendeetako dokumentazioa erkatuko lukeen ikerketa sakon batek puntu interesgarriak eman litzake argitara.

aztertzeko bide egokia izan daiteke. Hemen honen adibide xume batzuk ematera mugatuko gara:

Despalatalizazioa gertatu den *Aezkoan* adibidez, *Olloquiatea* gisa dokumentatzen da 1782an<sup>37</sup> Hiriberrin egungo (*paso de*) *Oilokiate* toponimoa<sup>38</sup>, *Teiláldea* eta *Olatzegeina* gisa ebakitzen dira egun aurreko *Tellerialdea* (*Tellerialdea* 1916ko katastroan) eta *Olatzegaña* (*Olatzegaña* 1782an<sup>39</sup>). Abaurrepean *Gadeagaña* dugu 1781ean<sup>40</sup>, *Garagaina* 1916ko katastroan eta *Garaginéa* edo *Garainéa* orain (\*< *Garagein(e)a*).

Asimilazio bustidura dela eta, toponimiak askotan, eta euskara galdu den eremuetan, bertako aspaldiko sabaikarrikuntzaren berri ematen digu. Esaterako, *it* > *itt*, *it* > *itt* edo *int* > *intt* aldakuntzak seguruak dira orain euskara desagertu den Arakilgo hainbat herritan, eta hau oraindik ere toponimian sabaiko herskari ahoskabea gordetzen delako dakigu batzuetan: *Minttégi* (Irurtzun), *Alzugóitti* (Egiarreta), *Minttégi*, *Iturmuttu* (Zuhatzu), *Iturgoizéta*, *Katilitúrri*, *Minttizar* (Ihabar)...

Edo soinu horren ondorengoa den *tx* [č]-k salatzen duelako<sup>41</sup>: *Mintxegi* (Errotz), *Itxurmutxu* (Ekai, cf. *Iturmuttu* Zuhatzun), *Irupittur* edo *Irupítxur* (Ihabar)....

Euskararen galera lehenago gertatu den beste alderdi batzutan bakarrik txetxekaria edireten dugu, baina hau, dokumentazioarekin batera maiz, sabaiko herskari ahoskabea ebakitzen zelako froga garbia izaten da:

Galar herrian, kasu, *Iturqueta* dugu 1888an baina *Txurkétas* orain<sup>42</sup>, zendea bereko Espartzan berriz *Iturricoa* dugu 1888an, *Ichurrico* 1927an, eta *Ixurrikos* orain, *it* > *itt* > *itx* > *ix* gertatu delarik<sup>43</sup>. Oltza zendeako Aratzurin, *Catilluiturri* dugu 1820an, *Catilluiturria* 1828an, *Katxilitúrri(s)* orain<sup>44</sup>;

Mostra gisa honako toponimo hauek aipa daitezke: Larraonako *Yrugaimendigaina* eta *Arizcungaina* (Allin eta Ameskoetako hipotekak, 1. liburua, 19. or., 1830), Ekalako *Yguipiocagaina* (cf. halere, *Urramendigaiña* herri berean. Idem, 1830, 22. or. eta 22. org.), Barindanoko *Oriviagaina* eta *Neggaila* (Idem, 1827 eta 1830, 23. or. eta 25. org. Azken toponimoaren despalatalizazioa dudazkoa da, jatorrizko forma zein den ez dakigunez gero), Bakedanoko *Zavalgaina*, *Saldosina* (< -osina 'putzua'?) *Larroigaina* (Idem, 1825, 34. org.), eta Artabiako *Bustincibelgaina* (Idem, 1819, 38. or.).

37. PRA-Auritz, 50. k.

38. Cf. *Ollanchiqui* 1706an Satrustegin (PRA-Arakil-Iriberrri), 60. k.), *Ollarchiqui* 1717an (PRA-Arakil-Iriberrri, 62. k.), *Ollartxiki* [òlārčiki] orain, *oihan*-etik.

39. PRA-Auritz, 50. k.

40. PRA-Auritz, 49. k.

41. Halaz ere, [č] hori batzuetan asimilazioaren fruitu izan daiteke, Mutiloagoitiko *Txurtxiki*-n (*Iturchiqui* 1892ko katastroan) esaterako.

42. *Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Cendea de Galar* (TCPCG), Euskaltzaindia, Iruñea, 1987, 271. or.

43. *Idem*, 168. or.

44. TCPCO, 37. or.



Antsoain zendeako Añezkarren<sup>45</sup> *Iturcoa* nahiz *Ichurcoa* aurkitzen dugu mende honetako katastroetan.

Bustidura honen antzinatasuna ikertzea, ordea, zailagoa da, gaztelaniak *tt* emateko grafemarik ez zuenez dokumentazioko *t* hutsak soinu horren ordezkatzailerik izan daitezkeelako. Nolanahi ere, *t* eta *ch* toponimo berean aldizkatzen direla ikusten bada, edo azken digrama hau etimologikoki *t* behar duen toponimo batean azaltzen bada, sabaiko soinua zegoelako seinale izan daiteke. Cf., adibidez, *Ichurrisarraldea* (*Itturizarraldea*, alegia) Lakuntzan 1716an<sup>46</sup>, baina *Artázilgo ittúrrie* egun.

Beste batzuetan ez adierazgarria ez asimilaziozkoa ez den bustidura aurkitzen dugu. Hona hemen, gaian sakondu gabe aipa daitezkeen aldakuntza eta adibide batzuk:

*s-* > *x-*: *Xarioedergeina* (< \**Sarioedergaina*), *Xerreriazarraldea* (< \**Serreriazarraldea*), *Xailbidea* (< \**Sailbidea* Abaurregainean, *Xarioberri* (< \**Sarioberri*) Orbaran.

*-s-* > *-x-*: *Basacaldea* 1781ean Garraldan<sup>47</sup>, *Baxakaldea* orain.

*-s-* > *-x-* > *-tx-*: *Arcasagardoy* Garaioan 1783an<sup>48</sup> > *Acasardoy* 1916ko katastroan, *Akatxardoi* egun; *Axiteko errota*, *Axiterte* ‘Dos Hermanas’ Urritzolan, *Ajita* Irurtzungo dokumentazioan, zalantzarik gabe \**Axita*-tik atereak, bokal-harmoniaz Urritzolan.

*z* > *x*: aldakuntza hau oso arrunta da Nafarroako toki askotan, eta ez dirudi balio adierazgarririk duenik, gehienetan bederen: *Lezebeltz* edo *Lexebeltz* Arakil-Uhartan, *Bordaxár* Aizkorben, *Pikuxár* Irutzunen (*Picuzar* 1894eko katastroan), *Errotaxár* Arakil-Hiriberrin, *Sorolúxe* Aezkoako mendietan, baina *Olazár* (= *La Fábrica vieja*) toki berean; *Larreluxétas* Aezkoa-Hiriberrin, *Larreluceta* 1916ko katastroan; *Errotazarraldea* edo *Errotaxarraldea*, *Atakazarretas* eta *Atakaxarretas* egun herri berean, Aezkoan hain arrunta den toponimo askotako *zilo/xilo* txandaketa ez aipatzearren.

#### 4. Bago / fago / pago

Hasierako lekuneko kontsonanteen txandaketa oso gai zabala da, eta hemen eskaini diezaiokegun baino azterketa sakonagoa merezi du. Gu oraingo honetan *fagu*-ren ondorengoan inguruko argitasun zerbait ateratzen ahalegin-

45. TCPCA.

46. PRA-Etxarri-Aranatz, 48. k.

47. PRA-Auritz, 49. k.

48. PRA-Auritz, 51. k.

duko gara, izenburuko aldaera horietako bakoitzak hartzen duen eremua ikusiz, beti ere ditugun datuetan oinarriturik.

Datu hauen arabera *pago* jaun eta jabe dugu Burundan, Larraun, Imotz, Basaburugoién eta Basaburubarrenean<sup>49</sup>. *Fago* aldaera Ameskoan (*bago* behin azaltzen da), Ergoien eta Arakilen<sup>50</sup> edireten dugu eta *bago* Nafarroan zabalduen dagoen (edo egon den) aldaera da, honako toki hauetan aurkitzen baitugu: Olloibarren (lekuko bakarra), Xulapainen, Ezkabarten (lekuko bakarra), Atetzen, Olaibarren (lekuko bakarra), Ultzaman<sup>51</sup>, Anue, Baztan<sup>52</sup>, Esteribar (lekuko bakarra), Erroibar, Aezkoa<sup>53</sup>, Artzibar, Zaraitzu, Erronkari, Aranguren (bi lekuko), Untzitibar (lekuko bakar ez oso segurua dugu), Ibargoiti, Orba eta Oibar<sup>54</sup> aldean.

Bortzirietan eta Gulibarren, azkenik, hiru aldaerak agertzen dira dokumentazioan: lehenean arruntenak *pago* eta *bago* dira, eta bigarrenan *fago* eta *bago*. Guztiarekin ere, badakigu egun *bagua* [bágwa] esaten dutela Beran, eta hortaz esan dezakegu Iturengo egoera bera errepikatzen dela Bortzirietako herrian. Izan ere, Malerrekako herri horretako dokumentazioan *pago* eta *bago* azaltzen dira, baina eguneko aldaera *bagoa* [báguà] da.

## B) Morfologia maila

Toponimiaren bidez argitasun franko atera ditzakegu orain erdalduna izan arren noizbait euskalduna izan zen eskualdeko euskararen morfologia mailako kontuez. Gu hemen *-doi / -dui / -di* atzizki multzokariaren banaketa geografikoaz baizik ez gara mintzatuko, baina garbi dago beste atzizki batzuen inguruan ere azterketa sakona egin daitekeela<sup>55</sup>.

49. Udaben *pagoa* [págoà], esaten dute, eta honekin batera paidi [páidí] '*pagadi*' edo paidi [páidí] '*pagadia*'. Aranazko Lakuntzan *Pagatto* [pagáto] toponimoa dugu bizirik, baina Arbizun *Fa(g)txabal* aurkitzen dugu.

50. Arakil-Uharten *fagoa* eta *fagadie* erabiltzen dute.

51. Illarregin *bá(g)wa* esaten dute.

52. Arizkunen *bagoa* [bágwa] '*pagoa*' eta *bagorie* '*pagadia*' erabiltzen dute.

53. Bonaparte printzeak bago bildu zuen Pirineoetako hiru ibarretan (Aezkoa, Zaraitzu eta Erronkarin, alegia). Ikus "Un Vocabulario aezcoano, salacenco y roncalés preparado por el Principe Bonaparte", "Sobre historia de la Lengua Vasca", *ASJU*, Donostia, 1988, 290-319. orr.

54. Bailara honetako Bizkaiko Sabaitzan, Ibargoitiko Zirotz eta Erezpuruko mugan *Bagobacoiz* edo *Bagabacoiz* dokumentatzen dira 1648an (PRA-Kaparroso, 43. k.), baina erdaraz *El Fayal* dugu bizirik egungo egunean. Elortzibar eta Arangurengo egoera ere antzekoa zen: lehen bailaran euskarazko izenaren aldaeraren berri ez dugu, baina inguruko bailaretan azaltzen dena ikusita *bago* erabiltzen zutela egingo genuke. Arangurenen aldaera hau ibiltzen zutela badakigu (nahiz lekuko gutxi ditugun). Alabaina hemen ere f-dun aldakia dugu erdarazko izenetan: *El Fayal chiquito* eta *El Fayal grande* Otaon egun, *Dehajo del Fayal* Labion 1892ko katas-troan.

55. Deklinabide atzizkiak ere sarri azaltzen dira, bereziki inesiboa, adlatiboa, leku-denborazko genitiboa eta genitiboa.

Atzizkiaren banaketa geografikoari dagokionez, esan daiteke *-di* aldaera dela Nafarroan nagusi agertzen dena, honako tokietan azaltzen baita<sup>56</sup>: Allinibar (*-doi*-rekin batera), Lizarra, Iguzkitza, Deierrri, Mañeruibar, Izarbeibar-Muru Arterderreta, Artaxona, Orba, Oibar haraneko Bizkaian (eremu honetako datu gutxi ditugu, alabaina), Gesalatz, Etxauribar, Iruñerriko bost zendeetan, Iruñea, Aranguren, Eguesibar, Burlata, Elortzibar, Ibargoiti (bestelako aldaerak ere baditugu hemen, halaz ere), Longida (beste aldaera batzurekin batera), Erroibar, Burunda, Aranatz, Ergoiena, Arakil, Ollibar, Gulibar, Xulapain, Atetz, Ezkabarte, Olaibar, Esteribar, Araitz, Larraun, Basaburubarrena, Imotz, Ultzama, Odieta, Anue, Basaburugoiena, Malerreka, Bortzirriak, Baztan.

*Doi* aldaera Ekialdean edireten dugu batik bat, honako bailara hauetan: Erronkari, Zaraitzu, Aezkoan (azken honetan *-dui*-rekin batera), Urraulgoiti (datu gutxi ditugu) eta Artzibarren (Aezkoan bezala *-dui*-rekin batera).

Dena den, eta esan moduan, Lizarrerriko Allin ibarrean ere dokumentatzen da, *-di*-ren aldamenean.

*Dui*, azkenik, honako toki hauetan azaltzen da: Aezkoan (esan moduan *-doi*-ren aldamenean), Artzibar (hemen ere *-doi*-rekin batera), Untzitibar (?) (datu gutxi dugu), Agoitz (datu gutxi), Itzagaondoa (?) (datu gutxi), Longida (*-di*-rekin batera. *-Doi* ere ageri da toponimo batean), Urraulbeiti, Ibargoiti (aldaera nagusia *-di* den arren), Oibar harana (Leatxen eta Bizkaian ezik), Galipentzu, Uxue eta Murillo el Fruto (azken herri honetako lekuko bakarra dugu). Gero berriz Estellerriko Ameskoan ageri da (*-doi* eta *-di* ere azaltzen dira inoiz edo behin), *-dui* nagusi den Arabako mugan.

### C) Semantika maila

Semantikaren barruan toponimia oso bide egokia da izen askoren banaketa geografikoa eta dituen adiera edo ñabardura ezberdinak aztertzeko. Hau oso alor zabala da, eta hemen erdarazko 'río'-ren euskarazko baliakideak diren *ibai* eta *ugalde*-ren banaketa geografikoa aztertzeraz mugatuko gara.

*Ugaldea* Nafarroan zehar oso hedatua dago, eta beldurrik gabe esan dezakegu *ibai*-k baino aise eremu handiagoa hartzen duela. Beste kontu bat zera da, zenbait tokitan ez direla ez bata ez bestea erabiltzen, *erreka* edo *erreka haundia* baizik<sup>57</sup>. Beste toki batzuetan *ibai* / *erreka* edo *ugalde* / *erreka* era-

56. Zehaztasun gehiago nahi duenak *FLV* (1991, 57. zkia., 33-53. orr.)-n argitara eman dugun "Do.i atzizkiaren ondorengoak Nafarroan" ikus dezake.

57. Ohizko arazoa izaten da honelakoetan informatzaileak ezagutzen duenaren eta erabiltzen duenaren arteko muga finkatzea. Goizuetan *Erreka haundia* esaten diote Urumeari, eta gainerakoak *erreka txikiak* dira. Leitzan beti *erreka* esaten dute (Tolosako Oriá ibaiari *Tolosako erreka* esaten omen diote), eta Basaburubarreneko Udaben *erreka* [éřekà] edo *erreka haundii*

biltzen dira edo erabili dira, tamaina eta garrantzi ezberdinetako ubideak aditzera emateko, *erreka* beti txikiena delarik, nahiz txikitasun hau ere ez den berdina toki guztietan.

Beste batzuetan *Urandia* eta *Urtxikia* edo *Urtxikina* (Aezkoan ondar hau) aurkitzen dugu bereizketa hori adierazteko, baina guzti hau lantxo honetan egin dezakegun azterketatik kanpo gelditzen da, eta beraz ez gara horretaz arduratuko.

Hauxe da *ugalde* eta *ibai*-ren banaketa:

*Erriberagoiengan Bayunga* dugu Kaparroso, Arrada eta Santakaran 1617 az<sup>58</sup> geroztik.

*Mañerui*barren *Ugaldegaña* dugu Etxarrenen 1726an<sup>59</sup>; *Ugaldeluzea* Ziraukin 1786an<sup>60</sup>, *Ubaldea* 1894ean<sup>61</sup>.

*Etxauri*barren *Ibaia*<sup>62</sup> eta *Hibaiabidea*<sup>63</sup> ditugu Belaskoainen 1675 eta 1620an; *Ugaldegaña*<sup>64</sup> eta *Hugueldegañeta*<sup>65</sup> Arraitzan 1818 eta 1882an; *Ugalde*<sup>66</sup> eta *Hugaldegaña*<sup>67</sup> Bidaurretan 1617 eta 1861ean; *Ugaldezabaleta*<sup>68</sup>, *Ugaldepeas*<sup>69</sup> eta *Ugaldebidea*<sup>70</sup> Etxaurin 1661 eta 1613an; *Ugaldepeta*<sup>71</sup> Etxarrin 1663an.

[eřéka aņdiı] dira formarik erabilienak, baina *u(g)aldıı* ere erabiltzen dute, eta *ibaia* zer den badakite.

Beran eskuarki *Bidasoa* ibiltzen dute, baina galdetuz gero urbide hau *erreka* dela esaten dizute. *Ibaia* ere ezagutzen eta erabiltzen dute 'rıo' adieraz (batzuk bederen), baina hitz honek bigarren esanahi bat ere izan dezake, hain zuzen ere Galipentzun *badina*-k duena, 'ur-baltsa' edo erdarazko 'remanso' alegia (*Barrentzeko ibaia*). Mitxelenaren arabera ("Notas fonológicas sobre el Salacenco", 227. or.) *ibei* 'bi ildoren artean landu gabe gelditzen den lur xattia' da Zaraitzueraz, eta Iribarrenek forma horretaz gainera *ibay* ere biltzen du adiera beraz VN-n. Bortziritako hirian *ubéldiä* 'uholdea' da, Altsasuko *ubaldi* bezala (ikus Burundako datuak).

Arizkunen *erreka haundie* esaten diote *Baztan* edo *Bidasoa* ubideari, baina *ugaldea* [ugá]đea] ere ezagutzen (eta erabiltzen?) dute. Gainerako errekek *erreka txikiek* dira edo hobe *erreka txarrak*.

58. PRA-Kaparroso, 11. k. "Graviel Lopiez ariendo la Linpia del Rio que se llama baiunga en los termos de Caparroso rada y Santa Cara". Aragoaren ondoko erreka bat da hau.

59. PRA-Jaitz, 195. k.

60. PRA-Zirauki, 168. k.

61. Kat.

62. PRA-Atarrabia, 44. k.

63. PRA-Etxauri, 14. k.

64. PRA-Etxauri, 9.3k.

65. PRA-Etxauri, 132. k.

66. PRA-Etxauri, 13. k.

67. PRA-Etxauri, 111. k.

68. PRA-Etxauri, 29. k.

69. PRA-Etxauri, 12. k-bis.

70. PRA-Etxauri, 12. k.

71. PRA-Etxauri, 38. k.

*Gesalätzen Ubelaldia* dugu Jaitzen 1894ean<sup>72</sup>.

*Ollolibarren: Ugaldebidea* dugu Beasain-Egillorren 1721ean<sup>73</sup>, *Ugeldevidea* Anotzen 1846an<sup>74</sup>, *Ubeldebidea* 1903ko katastroan, *Ugalde aldea* Iltzarben 1692an<sup>75</sup>, *Hugalde bidea* Saldisen 1631n<sup>76</sup>, *Ugeldeondoa* 1736an<sup>77</sup>; *Ugaldeondoa* 1793an Ultzurrunen<sup>78</sup>.

*Oibar* aldean ez dugu aurkitu ez *ibai* eta ez *ugalde*, eta eskuarki *erreka* azaltzen da erdarazko ‘barranco’ adieraz. Zenbaitetan erreka handi samarra aditzera ematen duen *erregu* aurkitzen dugu (erdaraz ‘rio’ esaten zaie hauei), eta behin *Urandia* ‘Aragoa ugaldea’.

*Urraulbeitin Hugalde* dugu Artiedan 1850ean<sup>79</sup>, *Ugaldea* 1719an<sup>80</sup>, *Hugalde peta* Arripodasen 1710ean<sup>81</sup>, *Soto de Ugaldepeta* 1826an<sup>82</sup>; *Hugaldezelaia* dugu Tabarren 1725ean<sup>83</sup>, *Ugaldecozelaja* 1737an<sup>84</sup>.

*Orban Ugaldebencoia* dugu Puiun 1816an<sup>85</sup>, *Ugaldea* Barasoainen 1892an<sup>86</sup>.

*Elortzibarren* ez dugu *ugalde*-ren adibide zuzenik, baina bai zeharkakorik. Izan ere *ugalde*-ren laburpena izan ohi den *ugal* ibarreko herri batean baino gehiagotan azaltzen da, *Río Elorz* edo *Río Alrevés* adieraz: *Ugalpeco ychauraldea* dugu Otaon 1713an<sup>87</sup>, *Hugalpeta* Elortzen 1611n<sup>88</sup> eta Noainen 1796an<sup>89</sup>. Dorren urbidearen ertzeko alderdi ezberdinak izendatzen dituen *Golpéa* dugu egun, dudarik gabe 1913ko *Ugalpea*<sup>90</sup> eta 1945eko *Hualpea*<sup>91</sup> bera.

72. Kat.

73. PRA-Arakil-Hiriberri, 72. k.

74. Atarrabiako hipotekak.

75. IEA, 1008. k.

76. PRA-Asiain, 48. k.

77. PRA-Asiain, 174. k.

78. PRA-Asiain, 174. k.

79. Agoizko hipotekak, 3. liburua, 330. or. : “una viña...en el termino de Hugalde o río”.

80. PRA-Burgi, 25. k.

81. PRA-Irunberri, 3. k.

82. PRA-Oibar, 101. k.

83. PRA-Erronkari, 74. k.

84. PRA-Oibar, 51. k.

85. PRA-Oibar, 96. k.: “otra pieza...en ugaldebencoia...que afronta con...dos ríos y el puente de Sansoain”.

86. Kat.

87. PRA-Elo, 16. k.

88. PRA-Iruñea, 9. k.

89. PRA-Asiain, 20. k.

90. Kat.

91. Kat.

*Arangurenen Hualdeta* dugu Mutiloagoitin 1892an<sup>92</sup>, eta urbidearen ondoko *Ugaldea* dugu Labion 1543az geroztik<sup>93</sup>. Gongoran *Ugalderreca* dugu 1899an<sup>94</sup>, *Goldarréka* egun. Ilundainen *Ugalderreca* bi errekaen arteko eremuari esaten zioten lehen<sup>95</sup>.

*Eguesibarren Ugaldecoa* dugu Uztarrotzen 1900ean<sup>96</sup>, eta Elkanoko Lizarragak ere *ugaldea* erabiltzen du<sup>97</sup>. Uhartan ugaldearen ondoko auzo bati *Barrio de Ugaldea* esaten zitzaion (orain?)<sup>98</sup>.

*Iruñerriko zendeak*: Galar zendea *Ugaldea* eta *Ugaldecoa* dugu Galarren, eta *Hugaldea* eta *Hugaldepea* edo *Hugaldepeta* Getzen<sup>99</sup>. Zizur zendea *Ugalde basterra* dugu Zizur Nagusian<sup>100</sup>; Oltza zendea *Ugalde gañeoa* eta *Ugaldepea* ditugu Izkuen, eta *Ugaldea* Lizasoainen<sup>101</sup>. Itza zendea *Ugalde bidea* dugu Aldaban, *Ugaldepea* Iharten, eta *Ugaldea*, *Ugaldealdea*, *Ugalde bidea*, eta *Ugalde ondoa* Saratsan<sup>102</sup>. Antsoain zendea azkenik<sup>103</sup>, *Ugaldea*, *Hugaldecoa*, *Hugaldeco alorra*, *Hugaldepea* eta *Ugalde aldea* ditugu Añezkarren; *Ugaldebasterra*<sup>104</sup>, *Ugaldevideco* eta *Ugaldeondoa* Ballariainen, *Ugaldeondoa* eta *Hugaldepea* Berriobeitin, *Hugaldecoa* Berriogoitin, eta *Ugaldecoa* Oteitzan.

*Xulapainen Ugeldia* [ugé]dja] dugu Usin orain, eta bertan *ubéldia* esaten da EAEL-ren arabera. Larraiotzen *Ugaldea* dugu 1770ean<sup>105</sup>, *Ubeldecoa* 1894eko katastroan. Beorburun *Ugaldea* dugu 1707an<sup>106</sup>, *Igeldia* [igé]dja] orain.

*Ezkabarten Ugaldebidea* dugu Azotzen 1714ean<sup>107</sup>; *Ugaldeburua* Makirrianean 1721ean<sup>108</sup>, *Ugaldea* 1723an<sup>109</sup>.

92. Kat.

93. IEA, 77. kartoia.

94. Kat.

95. "Toponimia de Ilundáin (Valle de Aranguren)", Pedro Arriaga Mugueta, argitara gabeko lana.

96. Kat.

97. "Dió Escritúra Sagrátuan, ezi Paraisoarén erditic atratzecéla iturribát, cein andic partitzendén laur ugaldétan....", Doctrina Christioarén Cathéchima. Fede Christioarén gáin, Príncipe de Viana-Euskaltzaindia, Iruñea, 1979, 103. or; alabaina *ibaya* ere erabiltzen du.

98. PRA-Kaseda, 1767, 20. k.

99. J.Jurío, TCPCG, 287, 346 eta 367. orr.

100. J.Jurío, TCPCC, 207. or.

101. J.Jurío, TCPCO, 108 eta 228. or.

102. J.Jurío, TCPCI, 65, 184 eta 350. orr.

103. Jimeno Jurío, TCPCA, 142-143, 195, 227-228 eta 259. or.

104. "pieza en Ugaldebasterra afronta con el río".

105. PRA-Atarrabia, 84. k.

106. PRA-Ihaben, 40. k.

107. PRA-Atarrabia, 57. k.

108. PRA-Atarrabia, 66. k.

109. PRA-Atarrabia, 67. k.

*Gulibarren Hugaldea* dugu 1796an<sup>110</sup> Larunben, *Ugaldecoa* 1742an<sup>111</sup>, *Ugalaldea* 1796an<sup>112</sup>, *Ubeldekua* [ùbe]dékwa] orain. Zian *Hugueldea* dugu 1786an<sup>113</sup>, *Ugaldecoa* 1795ean<sup>114</sup>.

*Atetzen Ugeldia* [ugé]dja] dugu egun Beratsainen, *Ugaldealdea* eta *Ugaldecoa* 1893an<sup>115</sup> eta Beuntzan *ugeldia* [ugé]dja] ‘erreka haundie’ bizirik dago oraindik. Aroztegin *Ugaldecoa* dugu 1720an<sup>116</sup>, *Ugaldeondoa* 1842an<sup>117</sup>, *Ugaldea* 1849an<sup>118</sup>.

*Imotzen Ugaldebidea* dugu bizirik Erason; *Ugaldezabal* dugu Oskotzen 1714ean<sup>119</sup>, *Ugaldecoa* herri berean 1732an<sup>120</sup>.

*Odietan Ugaldetacoa* dugu Gelbentzun 1854ean<sup>121</sup>, *Ugaldeta* herri berean 1901ean<sup>122</sup>; *Hugaldea* dugu 1724ean<sup>123</sup> eta *Ugaldea* 1853an<sup>124</sup> Anotzibarren; *Ugaldebe* Erripan 1708an<sup>125</sup>.

*Olaibarren Ugaldegora* dugu 1720an Olaben<sup>126</sup>.

*Anuen Ugaldecoa*, *Ugaldezocoa* eta *Ugaldeondoa* ditugu 1893an<sup>127</sup> Aritzun.

*Esteribarren Ugaldeondoa* dugu Antxoritzen 1716an<sup>128</sup>, eta Eugin *ugeldia* ([ugé]dja] seguraski) dugu EAEL-ren arabera.

*Erroibarren ugaldia* ([ugá]dja] seguru asko) bildu du Mezkitzen EAEL-k.

110. PRA-Asiain, 176. k.
111. PRA-Ihaben, 71. k.
112. PRA-Asiain, 176. k.
113. PRA-Asiain, 129. k.
114. PRA-Asiain, 131. k.
115. Kat.
116. PRA-Ihaben, 50. k.
117. Gravámenes (Grav.)-III, 142.zkia., 122. or.
118. Grav-III, 142.zkia., 124. or.
119. PRA-Ihaben, 64. k.
120. PRA-Ihaben, 65. k.
121. Grav., 9.lib., 409. or.
122. Kat.
123. PRA-Atarrabia, 67. k.
124. Grav., 140-I zkoa., 346. or.
125. PRA-Ihaben, 56. k.
126. PRA-Atarrabia, 66. k.
127. Artxibategi administratiboko katastroa, 12. alea.
128. PRA-Atarrabia, 61. k.

*Artzibarren Ugaltondo* dugu 1892 eta 1914ean<sup>129</sup> Artozkin; *Ugaldezocoa* dugu 1914ean Uritzen<sup>130</sup>; *Usoz ugaldecoa* dugu 1892an<sup>131</sup> Muniainen; *Ugaltondo* dugu Zaraguetan 1892an<sup>132</sup>, eta *ugalde* da Hiriberrin oraindik erabiltzen den hitza<sup>133</sup>.

*Orotz-Betelun: Ugalondo* eta *Ugaldepea* dokumentatzen dira<sup>134</sup>.

Aezkoan *Ibaielusa* dugu Garraldan 1721ean<sup>135</sup> eta 1914ean<sup>136</sup>, *Ibairreca* 1781ean<sup>137</sup>, *Ibairrecaldea* 1782an<sup>138</sup>; Ariben *Ibaibe* dokumentatzen da 1782an<sup>139</sup>; Arian *Ugaldebarrena* dugu egun, eta Hiriberrin *Ibaizelaya* ageri da 1785ean<sup>140</sup>. Garaioan *Sorazarugaldea* dugu 1783 eta 1784ean<sup>141</sup>; Abaurregainean *ugálde*, *ugáldja* edo *ugáldeà* izena arrunta da bertako euskaldunen artean. Azkuek ere *ugaldea* bildu zuen "Iratiko ugaldean" izeneko ipuinan<sup>142</sup>, eta lehenago Bonapartek ere *ugaldea* eman zuen frantseseko *rivière*, *fleuve* edo *torrent*-en Aezkoako euskarazko ordain gisa<sup>143</sup>.

*Zaraitzun* Bonapartek *ugalde* bildu zuen, Aezkoan bezala, eta geronek ere *Aragua ugaldea* [arágwa uga]déa], *Zaitzu ugaldea* [sájcu ugá]dea] eta *Sabrose ugaldea* bildu ditugu bertan. Izizen, gainera, *Hugaldea* dugu 1891n eta 1916an<sup>144</sup>.

*Erronkarin ugalte* genuen Printzearen arabera, bertan ohizkoa den albo-kariaren ondoko herskari ahoskabea ageri dela, eta 1704ean *Osin ugaltea* dokumentatzen da Izaban<sup>145</sup>.

*Burundan ibaya* bildu zuen K. Izagirrek Altsasun 'rio' adieraz, eta *ubaldi* 'uholde' esanahiaz<sup>146</sup>. Bakaikun *Ibaibico iturriadena* dugu 1697an<sup>147</sup>; *Ibaiaga*

129. Katastroak.

130. Kat.

131. Kat.

132. Kat.

133. EAEL-I, 120.

134. Benito Urtasun Villanueva, "Toponimia de Oroz-Betelu", FLV, 1971. 92.zkia., 338. or.

135. PRA-Auritz, 27. k.

136. Kat.

137. PRA-Auritz, 49. k.

138. PRA-Auritz, 51. k.

139. PRA-Auritz, 50. k.

140. PRA-Auritz, 53. k.

141. PRA-Auritz, 51 eta 52. k.

142. "Aezkera edo Petiriberro-inguruetako mintzaera", 200. or.

143. "Un Vocabulario aezcoano, salacenco y roncalés".

144. Kat.

145. PRA-Erronkari, 60. k.

146. An.F.J.U. 1967, 45-97. orr.

147. PRA-Altsasu, 24. k.



(“regata de —”) 1776an Iturmendin<sup>148</sup> eta *Ibaibikoerreka*<sup>149</sup> edo *Ibaibikoerrekadana* 1712 eta 1776an. Urdiainen *Canguituco ibayaurra* dugu 1701ean<sup>150</sup>, eta *Zuibayaldea* eta *Zuibayachulo* herri berean 1915ean<sup>151</sup>, eta egun *ibaya* esaten dute<sup>152</sup>.

*Aranatzen Ubaldecalea* dugu Arbizun 1709an<sup>153</sup>, *Leziza ubeldia* [ubé]-*dja*] eta *Arakilgo Ubeldie* [ùbe]dié] egun, eta *ubeldie* ibiltzen da izen arrunt gisa, baina hauekin batera *Ibaiaurre* dugu 1715ean<sup>154</sup>. Etxarrin berriz, *ibeye* dugu bizirik<sup>155</sup>, eta dokumentazioan *Elcorriubaldea* dugu 1702an<sup>156</sup>, *Ubaldecalea* 1705ean<sup>157</sup>, eta *Ubalde* edo *Ugalde* 1915ean<sup>158</sup>.

*Ergoienean ubeldie* dugu Lizarragan<sup>159</sup>.

*Arakilen Ugalde*ta dugu orain bizirik Izurdiagan; *Ugalde*ta dugu Irurtzunen 1894 eta 1915ean<sup>160</sup>, *Ugalde*ta dugu 1894eko katastroan Urritzolan eta *uáldea* da bertan ibiltzen den izen arrunta<sup>161</sup>. *Ugalde*ta dugu Etxeberrin 1894ean<sup>162</sup>; *Ugaldepea* dugu 1708an<sup>163</sup> Egiarretan eta *Uguelde* 1713an<sup>164</sup>, baina hemen *ibai* ere azaltzen da, ez dakigu zer adieraz: *Ibaialdea* dugu 1718<sup>165</sup>, eta *Ybialde(a)* 1894ean<sup>166</sup>. Zuhatzun *Ugeldeta* dugu, Satrustegin *Hualdeondoa* ageri da 1915ean<sup>167</sup>, eta Irañetan *ugeldie* [ugé]dje] esaten dute oraindik. Uhartan, alabaina, *Ibaialdea* dokumentatzen da 1705ean<sup>168</sup>.

148. Nicolás Arbizu Gabirondo, “Toponimia de Iturmendi”, FLV, 1990, 56. zkia., 261-275. orr.

149. “Llaman los de Iturmendi Ibaibikoerreka y los de Bacaicoa la que nace en la fuente de Algorri”.

150. PRA-Altsasu, 19. k.

151. Kat.

152. EAEL-I, 120.

153. PRA-Etxarri-Aranatz, 42. k.

154. PRA-Arakil-Hiriberri, 69. k.

155. EAEL-I, 120.

156. PRA-Etxarri-Aranatz, 28. k.

157. PRA-Etxarri-Aranatz, 28. k.

158. Kat.

159. EAEL.

160. Kat.

161. EAEL-I, 120.

162. Kat.

163. PRA-Arakil-Hiriberri, 60. k.

164. PRA-Arakil-Hiriberri, 61. k.

165. PRA-Arakil-Hiriberri, 62. k.

166. Kat.

167. Kat.

168. PRA-Arakil-Hiriberri, 65. k.

*Larraunen Ugaldondo* dugu Arruitzen 1893an<sup>169</sup>; *Ugaldea* Baraibarren 1893an<sup>170</sup>, baina EAEL-k *ibaia* bildu du Allin.

*Basaburubarrenean Ugaldea* eta *Ugaldealaorzabala* ditugu Orokietan 1710ean<sup>171</sup>, *Ugalde eunzea* 1714ean<sup>172</sup>; *Ugaldeondoa* dugu Gartzarunen 1719an<sup>173</sup> eta orain *ualdea* esaten dute bertan<sup>174</sup>; *Ugaldecoa* dugu 1714ean<sup>175</sup>, *Ugaldeta* 1893an<sup>176</sup> Itsason; *Ugalderabidea* dugu 1710ean<sup>177</sup> Udaben, *Ubalde bidea* 1915ean<sup>178</sup> (ikus herri honetan erabiltzen diren izenez 57. oinoharrean dioguna.

*Ultzaman Ugaldezubi* dugu 1723an<sup>179</sup> Urritzola-Galainen; *Ugaldecoa* dugu 1710ean<sup>180</sup> Gorrontz-Olanon; *Ugalderabidea* dugu Larraintzarren 1705ean<sup>181</sup>; *Ugaldealdea* 1709an<sup>182</sup> Iraizotzen, *Ugaldecoberroa* 1710ean<sup>183</sup>, eta *Ugaldecoa* herri berean 1717an<sup>184</sup>; *Ugaldezubia*, *Ugaldezubiraldea* eta *Ugaldetacozogoia* ditugu 1710ean<sup>185</sup> Alkotzen; *Ubaldeondoa* dugu 1711n<sup>186</sup> Auzan; *Ugalderabidea* dugu 1714ean<sup>187</sup> Eltzaburun, *Ugaldea* herri berean 1718an<sup>188</sup>; *Ugaldecoalorra* Suarben 1711n<sup>189</sup>. Illarregin orain *erreka* [eřéka] esan ohi dute, baina *u(g)óldja* ere erabiltzen dute erreka handia denean.

*Araitzen Ugaldebordatari* dugu 1893an<sup>190</sup>.

*Basaburugoienean erreka* dugu Saldiasen, eta *erreka* edo *ibaia* Leitzan EAEL-ren arabera, baina 57. oinoharrean diogun moduan azken herri honetako hitza *erreka* da. Goizuetan ere *erreka haundia* erabiltzen dute.

- 169. Kat.
- 170. Kat.
- 171. PRA-Ihaben, 53. k.
- 172. PRA-Ihaben, 53. k.
- 173. PRA-Ihaben, 64. k.
- 174. EAEL-I.
- 175. PRA-Ihaben, 64. k.
- 176. Kat.
- 177. PRA-Ihaben, 63. k.
- 178. Kat.
- 179. PRA-Ihaben, 58. k.
- 180. PRA-Ihaben, 57. k.
- 181. PRA-Ihaben, 56. k.
- 182. PRA-Ihaben, 56. k.
- 183. PRA-Ihaben, 57. k.
- 184. PRA-Ihaben, 58. k.
- 185. PRA-Ihaben, 57. k.
- 186. PRA-Ihaben, 53. k.
- 187. PRA-Ihaben, 57. k.
- 188. PRA-Ihaben, 58. k.
- 189. PRA-Ihaben, 40. k.
- 190. Kat.

*Malerrekan Hugaldea* dugu Zubietan 1776an<sup>191</sup>, *Ugaldea* herri berean 1840an<sup>192</sup>, eta *ugaldia* [ugá]dià] edo *ubaldia* [ubá]dià] esaten dute orain; Iturenen *Ugaldea* dugu 1928an eta 1982an<sup>193</sup>, eta *gualdia* [gwá]dià] esaten da gaurregun. Donezteben *Hugalde* dugu 1591n<sup>194</sup>, *Ugaldea* 1814ean<sup>195</sup>.

*Bortzirietan Ubaldeculurra* dugu Lesakan 1842an<sup>196</sup>, baina *erreka* da EAEL-ren arabera herri honetako erdarazko 'río'-ren ordaina. Beran *Ugaldea* dugu 1841ean<sup>197</sup> (ikus herri honetan erabiltzen diren izenez 57. oinoharrean dioguna).

*Baztanen ugeldea* dugu Lekarotzen EAEL-ren arabera. Arizkungo egungo erabileraz ikus oinoharretan esaten dena.

#### D) Prosodia maila

Azentuaketa aztertzea, toponimia hutsean oinarriturik, zaila dela ezin uka, baina hala ere ondorio batzuk atera daitezkeela uste dugu han-hemenkako datuak ezagutuaz, eta batez ere lehen-oraingo aldaeren berri izanez.

Izan ere, badakigu euskara galtzarekin batera euskal toponimoen azentuaketa aldatu egin zela, eta beraz pentsa dezakegu hizkuntz-ukipen eremuetan ere euskararen eta erromantzearen azentuaketak ezberdinak zirela, Mitxelenak erran moduan Hegoaldeko nafarrera garaiak "letra euskalduna eta soinu erdalduna" izan arren<sup>198</sup>.

Azentuatze-aldaketa argien erakusten duten toponimoak *-oa* eta *-ua-z* amaiturikakoak dira: *Bideburua* (Eslaba, 1593) / *Bideburba* 1783an); *Gezariburua* (1592an herri berean) / *Gezariburba* (1791n); *Ayzuloa* (Eslaba, 1576) / *Aizulba* (1752) / *Izurba* [iθúr̄ba] orain; *Bideondoa* (Lerga, 1552 eta 1743) / *Videandova* (1800. urtean) / *Biandoba* [biandó̄ba] orain; *San Jines ondoa* (Lerga, 1545, 1709) / *San Jines ondova* (1798an) / *Sanginesandoba* [sànxinèsandó̄ba] orain.

Badakigu Lerga eta Eslaban euskararen galera XVIII. mendearen erdi aldean burutu zela, eta hortaz, batetortze garbia dago hizkuntza desagertzearen eta *-ua* > *-ba*, *-oa* > *-oba*, *-ba* pausoen artean, eta hau azentuaketari zor zaio, itxura gutzien arabera.

191. Zubietako eliz artxibategia, kontratu-liburua.

192. PRA-Donztebe, Hipotekak.

193. Kat.

194. Doneztebeko eliz artxibategia (DEA), hildako-liburua.

195. DEA, hildako-liburua-2. Hau, alabaina, etxe baten izena izan zitekeen.

196. Grav., 13.zkia., 230. or.

197. Grav.-17, 156.zkia., 35. or.

198. "Acentuación alto-navarra", *FLV*, 1976, VIII, 147-162. orr.

Euskara beranduago galdu den beste eskualde batzuetan *-oa* > *-oba*, *-ba* pausoa ere beranduago burutu da. Aratzurin<sup>199</sup> kasu, *Sarroa* dugu 1788an, baina *Sarroba* 1903an; *Lasterróa* eta *Lasterroba* elkarren ondoan bizi dira Artazkotzen; *Izóba* dugu Izkuen orain, *Itzoa* edo *Izoa* 1818an eta 1903an; *Izagarroa* 1903an Ororbian, *Izagurrua* 1821ean, *Izaguerria* 1828an, *Izagarroba* 1942an *Lizagarróa*, *Lizagarróba* orain.

Antsoain-Oteitzan<sup>200</sup> *Aizcoa* dugu 1671n, *Ascoa* 1740an, baina *Ascoba* 1827an. Aranguren ibarreko Taxoare herrian *Mutiloa* dugu 1892 arte<sup>201</sup>, baina *Mutilba* 1899rako<sup>202</sup>. Gertakari hau, dena den, ez da beti burutzen, Iberoko *Morondóa*-k edo Uxueko *Zalamandóa* (< *Zabalondoa*)-k erakusten digutenez.

Azentuaketa *Atetz*, *Xulapain* eta *Gulibar* ibarretan ere aldatu da, euskara galdu aurretik, baina seguru asko gaztelaniarekiko ukipen-indarra areagotzearen ondorioz. Bestela neke da ulertzen bailara horietan aurkitzen ditugun azentuatze paroxitono itxuraz berriak: *Oraienpea* (1796) / *Orainpia* [oráim-pja] orain Gulibarko Larunben, \**Ugaldekoa* (cf. *Ugalaldea* 1796an) / *Ubeldekua* [ũbe|dékwa], herri berean; *Zigórdie* [sigóřdje] Aroztegin (*Ziaurdia* 1639an); *Iruzpegie* [iruspégje], *Ugeldia* [ugé|dja] Beratsainen eta Usin, *Zugardenia* [sugařdénja] (< *Zugar(ra)denea*) Beorburun...

Guztiarekin ere, azentuaketa hauek ez dira orokorrak: *Atetzen*, kasu, *Gesalde* [geśá|de] / *Gesaldea* ([geśá|déa] dugu (ez [geśá|dja]) Hiriberrin; *Bordabúru* / *Bördaburue* ([bõřdaburúe] (ez [bõřdabúrwe]) Beratsainen.

Iruñerrian ere edireten ditugu honelako azentuaketak, eta hemen ere euskararen galerarekin batera sortu zirela dirudi: *Morea* dugu Zizur zendeako Larraian 1664ean eta 1880an, baina *Moria* [móřja] egun; *Zococua* dugu herri berean 1837an, baina *Zococua* 1880an, *Zokókwa* [θokókwa] orain; *Arrondoa* Zubitzan 1888an, baina *Arrondua* [ařõřdwa] orain<sup>203</sup>...

Han-hemenka aurkitzen ditugun sinkopa batzu ere azentuaketari zor lekizkioke (azentuaketaren aldatzeari, indartzeari), bi gertakari hauen arteko lotura erabat frogatua ez egonagatik, itxuraz: *Ganberka* [gambéřka] dugu Arakil-Uhartan orain < *Gambaerrecua* (1893)<sup>204</sup> < *Gamboerrecua* (1716)<sup>205</sup>; *Kalbariota* [kalbarjóta] < \**Kalbarioeta*; *Azkonarta* [askonářta] <

199. J.Jurío, TCPCO, 53. or.

200. Jimeno Jurío, TPCPA, 94. or.

201. Kat.

202. Kat.

203. Kasu honetan *Arrondoa* 1927 eta 1945ean ere dokumentatzen da. Forma hauek agian dokumentazio idatziaren garrantzi eta pisuari zor zaizkiola pentsatu beharko dugu.

204. Kat.

205. PRA-Arakil-Hiriberri, 68. k.

\*Azkonarreta; *Tintagorrita* [t̪ĩtago̞r̪íta] < \**Tintagorrieta*; *Larrubitabárne*, *Larrubitebárne* < *Larrubitabarrena* (1702)<sup>206</sup>. Irañetan *Liezta* [liésta] dugu orain, *Liezeta* azken katastroan (1984 edo 1985ekoan), *Liaceta*, *Ligaceta* 1893an<sup>207</sup> < *Li(g)atzeta* ‘linares’; *Murgite* [murgíte], *Murgita* < *Murgindueta*; *Irinte*, *Irintarbidea*...

## E) Joskera

Hasieran esan bezala, toponimiaren azterketa ez da maila honetan sakontzeko biderik egokiena, baina besterik ezean toki-izenen ikerketari ekin behar-ko diogu nahitaez.

Toponimian, guk dakigula, erlatiboa da aurkitzen dugun perpaua mota bakarra, oso ugaria alabaina eskualde askotan, beste batzuetan aurkitzeko paradarik izan ez badugu ere. Adibidez Oibar aldean ez dugu alerik ere ediren, eta ia gauza bera esan dezakegu ondoko ibarrez, baina hauetaz dugun ezagutza urria izaki eta, ezin dugu baieztapen (edo “ezeztapen”) biribilik egin.

Jimeno Jurío jaunaren lanetan ikus daitekeenez Iruñerriko zendeetan behin baino gehiagotan aurkitzen ditugu erlatibozko perpauak. Cf. adibidez, Azteraingo *Erreca biac pacen direnecoan* edo *Erreca bioc pacen diren lecuana*<sup>208</sup> (zenbatzailearen ordenari erreparatu), eta herri bereko *Urdeac eciten direnecoan*<sup>209</sup>, arruntagoak diren Saratsako *Licerra denecoa* edo *Urcabete-nea*<sup>210</sup>-ren modukoak ez aipatzeagatik.

Ondoko beste ibarretan ere aurkitzen ditugu honelakoak: *Capanacenecoa* dugu 1794ean<sup>211</sup> Iltzarben, *Lezeadenea* urte berean Beasoain-Egillorren<sup>212</sup>, *Zumiadenea* dugu Anotzen 1903ko katastroan, *Aricedenecoa* 1833an Artetan<sup>213</sup> (Ollolibar); *Gurutzenea* Beuntzan (< \**Gurutze denea*) orain; *Ganbeladenea* Zigandan 1893an (Atetz); *Zugardénia* [θùgãr̪éñja] Beorburun, *Margarenia* [mãr̪gãr̪énja] (< *Marga denea*) Nuinen, *Askodenia* [ãškodénja] (< *harizko denea*) Markalainen (Xulapain), *Guruzenea*, *Lizarraenea* Zian (Gulibar)...

Arakilen horrelako toponimo eder bat baino gehiago daukagu bizirik: adibidez *Urdenazko ure sortzen dena*, *Larrañagako txaraka ixikitzen dena*

206. PRA-Arakil-Uharte, 3. k.

207. Kat.

208. TCPCC, 87-88. orr.

209. Idem, 142. orr.

210. TCPCI, 340 eta 350. orr.

211. PRA-Asiain, 174. k.

212. Idem.

213. Oltzako hipotekak, 2.liburua.

Uharten, eta Burundan ere antzera: cf., esate baterako, Bakaiku herrian 1713an dokumentatzen den<sup>214</sup> *Abadealsasuaerorizaneozulooa*.

Adibide zerrenda asko luza liteke<sup>215</sup>, baina hemen interesatzen zaiguna ez da hori, dialektologiaren ikerketarekin izan dezaketen zerikusia aztertzea baizik. Alde honetatik, uste dugu garrantzi handia izan dezakeela Artzibarko Luzarreta herrian 1858an dokumentatzen den *Gurbebaita* toponimoak<sup>216</sup> (“otra pieza...en Gurbebaita”), hau mendebalderago dauden beste herri batzuetako *Haritzadenea*, *Arteadenea*... eta antzekoen Ekialdeko kidea baita gure iritziz.

Ibar bereko Nagore herrian *Guerezibaitacoa* dokumentatzen da<sup>217</sup>. alegia, mendebalderagoko *\*Gerezidenekoa*-ren kidekoa den forma (cf. Xulapaingo Osinagako *Elorriadena* 1739an<sup>218</sup>, *Elordiadenecoa* 1768an<sup>219</sup>).

Aezkoako Garaioa herrian *Arizabaitacoa* toponimoa edireten dugu 1783an<sup>220</sup>, eta ibar bereko Hiriberrin *Ezpelabaitacoegua* toponimo polita azaltzen da 1872an<sup>221</sup>.

Erlatibo hauek Baztan aldean eta mendebalderago (Bortzirietan eta Malerrekan ere bai, oker ez bagaude) “neska bat etorri zen, ile gorria baitzuen,...” (‘neska bat etorri zen, ile gorria zuena’...) horien modukoak dira, eta uste dugu oso interesgarri izan daitekeela honelakoen muga nondik nora doan ikertzea, alegia, zer haranetan azaltzen den eta zeinetan ez ikustea, bertako mintzoen nolabaiteko sailkapena egin ahal izateko<sup>222</sup>.

## Bibliografia

- CIÉRBIDE, R., 1980, *Toponimia navarra: historia y lengua*, Nafarroako Foru Aldundia, Burlata .  
 CIÉRBIDE, R/HERRERO, G., 1985, "Toponimia de la comarca de la Oliva", CEEN, 46, 5-85. orr.

214. PRA-Altsasu, 30. k.

215. Cf. esaterako Mitxelenak “Algunos nombres de Contrasta” izeneko artikuluan aztertzen dituenak (SHLV-II, 614-626. orr.) eta Luciano Lapuentek bere “Toponimia amescoana” artikuluan (FLV, 21.zkia., 1975, 393-410. orr.) aipatzen dituenak.

216. *Gurbea* ‘poma’ da Azkueren arabera, baina fruituaren izena eta zuhaitzarena bera izaten denez, ‘pomo’ edo ‘pomero’ bezala ere interpreta daiteke.

217. PRA-Auritz, 7. k.

218. PRA-Ihaben, 70. k.


219. PRA-Atarrabia, 83. k.

220. PRA-Auritz, 51. k.

221. PRA-Auritz, 50. k.

222. Erdaraz *donde* + *aditza* aurkitu ohi dugu euskarazko erlatibo horien ordez: San Martin Unxen, kasu, egungo *Muriomozo*-ren sorburu den *Donde murió el mozo* toponimoa dokumentatzen dugu 1755ean. Behin edo behin *en el sitio de + izena* azaltzen da: cf. Amekoabarreneko San Martin herriko 1825eko *en el sitio del pomal*, dudarik gabe Luzarretako *Gurbeabaita* edo honen kidea litzatekeen *\*Gurbeadenea*-ren erdarazko ordaina (itzulpena?) dena.


- CIÉRBIDE, R/HERRERO, G., 1986, "Toponimia de la comarca de la Oliva II", CEEN, 47, 91-164. orr.
- CORONA BARATECH, C., 1947, *Toponimia navarra de la Edad Media*, CSIC, Huesca.
- EUSKALTZAINDIA, 1990, *Nafarroako herri izendegia*, Euskaltzaindia-Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- IRIGOIEN, A., 1987, *De re philologica linguae vasconicae-II*, Deustuko Unibersitatea, Bilbo.
- IRIGOIEN, A., 1990, *De re philologica linguae vasconicae-III*, Deustuko Unibersitatea, Bilbo.
- IRIGOIEN, A., 1990, *Sobre toponimia del País Vasco norpirenaico*, Deustuko Unibersitatea, Bilbo.
- IRIGOIEN, A., 1990, *En torno a la toponimia vasca y circumpirenaica*, Deustuko Unibersitatea, Iruñea.
- JIMENO JURIO eta beste, 1991, *Nafarroa. Toponimia eta mapagintza*, Nafarroako Gobernua Iruñea.
- NAFARROAKO GOBERNUA, *Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiaren toponimia datu-base argitara gabea*.
- ROHLFS, G., 1952, "Sur une couche préromane dans la toponymie de Gascogne et de l'Espagne du nord", *RFE* 26, 209-256. orr.



PATXI SALABERRI

I. mapa: bokal harmonia





2. mapa: bago/fago/pago.



1. Erreka / Ugaldea
2. Erreka / Ugaldea
3. Ugalderreka
4. Ibaia
5. Erregu
6. Urandia



4. mapa: Ugaldea/Ibaia/Erreka...